



Barne faktoreak



HIRUKI LARROSA

Uda urrun geratzen bazaigu ere, gu are atzerago goaz. Uda hasierara. Zein ederrak diren hasierak, e? Are ederragoak, interesa pizteaz gain, hausnarketarako eta artikulaziorako gune baten parte izanez hasita. Ekainaren 26 eta 27an, II. Hezkidetzeta eta Pedagogia Feministen Kongresua izan zen, Igel-don. Bi egunez, hezkidetzaren inguruan korapilatu ginen hainbat eta hainbat. Dinamiken aldetik oso emankorra izan zen. Zer esanik ez gaien aldetik: herri hezkidetzailleak, autozaintza eta zaintza komunitarioa, lodifobia, arte hezkidetzaillea, gizotasuna eta gizon gazteak, bazterretako erotika... Bi hitzaldi marko ere eman ziren. Pastora Filigranak, besteak beste, feminista, ijitoen giza eskubideen aldeko ekintzailea, lan arloko abokatu eta sindikalista denak, interseksionalitatea izan zuen hizpide. Mireia Delgado pedagogo feminista, ipuin-kontalari eta irakasleak, aldiz, pedagogia feminista izan zuen mintzagai *Hetero araua plazerez lehertu!* hitzaldian.

Azken hitzaldi horrek arreta berezia piztu zigun, autokritikarako bidea zabaldu baitzigun. Azken urteetan kezka iturri izaten ari zaizkigu hainbat eta hainbat eskoletatik jasotzen ari garenak: gazteen artean giroa gaiztotu dela, berdintasun faltsuaren diskurtsoak gazteen ahoak hartu dituela, berdintasunaren gaia lantzerakoan gazteek erakusten duten nekea, gaia landuz sortzen diren “generoen arteko gerrak”... Egoeraren analisisa egiteko, sektorean lanean ga-

Ezin da hezitzaileon edo gazteen aldartea gelako dinamiketarik guztiz banatu, ezin dira gu guztion artean dauden boterekeriazko hartu emanak lanen garapenetik askatu

biltzan hainbat elkarte eta kooperatiba elkartu gara azken hilabeteetan. Eta ohartu gara, kanpo faktoreez gain (sare sozial digitaletan gazteei zuzentzen zaizkien diskurtso biktimistak, ultraeskuinak jendartean ezarri dituen pentsamendu marko hainbat...), badaudela hainbat barne faktore egoera samurtu ez dutenak.

Solastatu genuen hezkuntza formalean zerbitzugintza dinamikorik detektatzen ari ginela, eta dinamikorik hezkuntzak izan behar lukeen izaera komunitario eta jarraitutik aldentzen direla; ohartu ere, dinamika polarizatzaileek irakasleek askotan gaiari heltzeko tresna falta izatea sorrarazten zutela; hitz egin genuen gazteak feminismoaren gaira erakartzen ditugunean, gaiaren konplexutasunean sakontzeko denbora faltagatik batez ere, sloganek nahi baino leku handiagoa dutela. Eta baita esku-hartzeetan dihardugunon ezinegun eta

minek batzuetan leku hartzen dutela ere. Filigranak dioen moduan, “guztia etengabe eta elkarloturik gertatzen da”, hau da, ezin da hezitzaileon edo gazteen aldartea gelako dinamiketarik guztiz banatu, ezin dira gu guztion artean dauden boterekeriazko hartu emanak bakoitzaren lanen garapenetik askatu, edota ezin da patriarkatua kapitalismo kolonialik gabe ulertu, dena batera eta aldi berean gertatzen baita.

Mireia Delgadok, gainezka egin ez genezan, hezitzaile zein irakasleontzako hainbat tresna eskaini zizkigun: bell hooksen *Transgresioa Irakasgai* (Katakak, 2023) edo Paulo Freireren *Pedagogía de la autonomía* (Siglo Veintiuno, 2008) liburuak gomendatu zizkigun, baina, batez ere, gure hezitzaile lekua- ren behaketan lagungarri izan zitzaizkigun galdera zaparrada bota zigun. Horietan, beti presente eta beti ahantzi dugunetako bat: *nola heldu naiz ni honaino?* Hezitzaile den ororen lanak duen izaera politikoak duen agerikotasunetik harago, gure hazkuntza prozesuan konzientzia kritikoa garatzeko baliagarriak izan zaizkigun (eta noski, lagungarriak izan ez diren) dinamikorik pentsatzeko gonbidapena egin zigun. Hor, gure lanaren garapenean lagun dezakeen pista asko dago.

Gomendagarria, oso, jardunaldien harira sortu podcastak entzutea (labur.eus/HLK847). Bakoitzaren motxilak zerez osatuak dauden begira jarriz jendartea iraultzen jarraitzeko. ●